

**Berrikuntza hori sistema aitzindaria da EAEko banaketan**

**EROSKI-K ON LINE EROSKETAK ESKURA EMATEKO  
LEHEN BAINO MODALITATE GEHIAGO DITU  
ORAIN ARMAIRU ADIMENDUNEKIN**

- Armairu adimendunak ipini dituzten EROSKIren Arrasateko hipermerkatuan
- Doako zerbitzua da eta erosketak egunean bertan jasotzeko modua ematen du, zain egon gabe, erosketa egiten denetik lau orduren buruan
- Bilgune horietan, tenperatura desberdineko eremuak daude, hoztuta eta izoztuta dauden produktuak behar bezala egon daitezten
- Zerbitzu berri horrekin, EROSKI orain lau modalitate ditu *on line* eskariak eskura emateko: etxekoa, dendetakoa (auto bidez zein ordainlekuetara joanda) eta orain armairu adimendunak

**Arrasate, 2020ko martxoaren 5a.** - [EROSKI](#)k on line erosketak eskura emateko modalitate gehiago ditu orain, Arrasateko hipermerkatuan ipini dituen armairu adimendunekin. Sistema aitzindaria da EAEko banaketan, eta EROSKI on line eskarien bilguneetan duen lidergoa indartzen du erkidego honetan.

Doakoa da zerbitzu berria, eta modua ematen du on line erosketak zain egon gabe jasotzeko, eskura baitaude eskaria egiten denetik lau orduren buruan.

Armairuak egokiak dira produktu mota guztietarako, hiru tenperaturatako eremuak baititu produktu hotzentzat, izoztuentzat eta giro tenperaturakoentzat; horrela, janaria behar bezala egongo dela bermatzen du.

*"EROSKI berrikuntzak egiten jarraitzen dugu gaur egungo kontsumitzailera egokitzeko. Erosketak eskura emateko sistema berri honekin, gure guztitarako kanalaren aldeko apustua indartu nahi dugu, kontsumitzailerek erraztasunak izan ditzaten eta beren erosketak ondoena egokitzen zaien moduan egin ditzaten. Sistema lasterra da, ez da zain egon beharrik eta hotz kateari eusten dio produktu mota guztietan",* azaldu du EROSKIren *On-line* Negozioaren zuzendariak, Mari Mar Escrigek.

Zerbitzu berri hori erabiltzea oso erraza da. Bezeroak on line eskaria egiten duenean, armairu mota aukeratu behar du, eta zein ordutan joango den erosketak eske. Eskaria prest dagoenean, jakinarazpen bat jasoko du SMSz dagoeneko

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

armairuetan dela esango diona eta armairuko ukipen pantailan irekiera kodea sartuta jaso ahalko du.

### **Guztitarako kanal bat gaur egungo kontsumitzaileentzat**

Gaur egungo kontsumitzaileek eskatzen duten horretara egokitua dago EROSKIren *on line* negozio eredua. *On line* supermerkatuak 15.000 elikagairen eta freskoren erreferentziak ditu, eta eskaintza komertzialik handiena egiten du, dendetako prezio eta promozio berberekin, gainera. Horrela, kanal guztietan bermatua gelditzen da erosketaren uniformearen esperientzia. Supermerkatu laster eta eraginkor bat da, edozein gailutara egokitua, eta erosketak denbora gutxian egiteko modua ematen duten bitartekoekin (azken erosketak, zerrenda, ohiko erosketak kanal guztietan...).

EROSKIk *on line* egindako eskariak eskura emateko lau modalitate ditu. Ohi bezala, etxera eramatearena dago; gainera, bera da zerbitzua EAE, Nafarroa eta Balear osoan eskaintzen duen bakarra eta hiriburuetan egunean bertan eramaten duena. Eta, hala berean, era askotako modalidateko bilguneak ditu etxean zain egon ezin dutenentzat: dendakoa —autoz edo oinez jasotzeko— eta orain armairu adimendunak; guztiak ere doakoak eta 4 ordu igaro baino lehenago eramateko prest izaten dutenak.

### ***On line* supermerkatu onena**

Kontsumitzaileek EROSKIren Interneteko denda aukeratua dute Espainiako *on line* supermerkatu onena hirugarren urtez jarraian. Urteko WebShop saria jaso zuen *on line* supermerkatuen kategorian, kontsumitzaileek botoa emanda supermerkatuaren asebetetze eta balorazio aldetik. Espainian dagoen kontsumitzaile lehiaketarik handiena da, eta *retail*aren saileko merkatu azterketarik handienetako bat egiten du.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)